

ZINPEKO ADIERAZPENA,  
IBILGAILUAREN ERABILERA ESCLUSIBOARENA

## AITORPENA AURKEZTEN DUEN PERTSONA

Eskatzailearen izena eta bi abizenak	NAN		
Pertsona minusbaliatua	IFK - NAN		
Kalea	Zk.	Solairua	Aldea
Posta kodea	Herria	Lurraldea	
e-posta	Telefono zk.	Sakelakoaren zk.	

## IBILGAILUAREN DATUAK:

Matrikula	Marka	Modeloa
-----------	-------	---------

## AITORPENA:

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita egon ahal izateko, behean sinatzen duenak, herri honetan erroldatuta dagoenak eta goian aipaturiko ibilgailuaren jabe denak, honako hau

## ZIN EGITEN DU

- Aipaturiko ibilgailua behean sinatzen duenak gidatzen eta erabiltzen duela, eta bere mesederako baino ez duela erabiltzen.
- Nahiz eta behean sinatzen duenak gidatzen ez duen, aipaturiko ibilgailua bera eramateko baino ez dela erabiltzen.

Jakinaren gainean geratzen naiz, Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 198. artikularekin bat etorriz, zerga urraketatzat hartuko dela onurak eta pizgarriak oker eskatzea, auto-likidazio edo aitorpenean datu garrantzitsuak isilean gordeta edo datu faltsuak jarrita. Modu berean badakit, apartatu horretan jasotako zerga urraketa 300,00 euroko diruzko isun finkoarekin zigortuko dela.

Eta Zinpeko Aitorpen hau Legazpiko Udalaren aurrean aurkezten da, dagozkion ondorioak sor ditzan.

Inprimaki honetako datuak udal eskumenen jardunean jaso dira dagokion prozedura egoki kudeatzeko, eta, legez beharrezkoa bada, datuok egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste Herri Administrazioei kontsultatuz. Datu hauek Legazpiko Udalaren Informazio Sistemari sartuko dira, eta hirugarrenei utzi ahal izango zaizkie datu personalak babesteko legerian aurreikusitako kasuetan bakarrik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, jo HAZera (Herritarren Arreta Zerbitzua) edo Udalaren Egoitza Elektronikora (<https://egoitza.legazpi.eus> helbidean). Erreklamazioa aurkezteko aukera ere baduzu: Legazpiko Udaleko Datuak Babesteko Babesteko Ordezkararen aurrean ([dpd@legazpi.eus](mailto:dpd@legazpi.eus) posta elektronikoan) edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoan ([www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus) helbidean).

Data	Sinadura
------	----------

